



Arartekoaren Ebazpena, 2012ko apirilaren 25ekoa. Horren bidez (...) tabernatik datozen zaratei buruz aurkeztutako kexa-espeditzea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Gasteizko herritar batek erakunde honen aurrean bere eraikinaren etxabeen dagoen (...) tabernatik sortutako zarata eta bibrazio kalte larriak salatu ditu.

Zehazki, adierazi duenez, zarata kalte horiek lokalaren musika bolumen altuaren ondorio dira.

Gaineratu duenez, hainbatetan musika ekipoak manipulatu direla ohartu da.

Azkenik, ostalaritza establezimenduaren itxiera ordua etengabe urratzen dela adierazi du.

2. Kexagileak adierazitako gogoeten arabera, Ararteko erakundeak kexa-espeditzea izapidetu nahi izan zuen (erreferentzia zenbakia: 2281/2011) eta Gasteizko Udalari informazioa eskatu zion egindako ikuskapenak ezagutze aldera, baita uneko gabeziak zuzentzeko aurreikusi zituen jardueren berri izateko ere.

2012ko otsailaren 1ean erakunde honetan sartu zen Gasteizko Udalaren erantzuna. Bertan, bideratutako jarduera garrantzitsuak helarazi zizkiguten.

Udalak igorritako informazioan jakinarazten da:

"- Se solicita licencia de actividad de Bar-Restaurante que se concede mediante Resolución de 5 de abril de 1990.

- Se concede licencia municipal de apertura mediante Resolución de 7 de marzo de 2000, previa comprobación de los Servicios Técnicos Municipales, que determinan en la inspección un nivel de aislamiento acústico de 60 dB(A)

- Con fecha 10 de febrero de 2010 se solicita por CLUB (...) S.C el cambio de titularidad de la actividad original pasando a ejercer únicamente la actividad de Bar. Se accede a dicha petición y se concede licencia de Bar mediante Resolución de 23 de febrero de 2010.

- Se incoan diferentes procedimientos sancionadores.

- Inspección de 12 de octubre de 2008 a las 7:50 en el que se constata que tras efectuar mediciones de ruido procedentes de la actividad, los niveles de ruido interno de 36 dB(A), es superior al nivel autorizado.





- *Confirmación de la instalación de un sistema de limitación acústico. Los Servicios Técnicos consideran necesaria la incorporación de algunas correcciones que den mayor garantía a la instalación. Este requerimiento propuesto por los Servicios Técnicos no es ejecutado.*

- *Control de ruidos con fecha 11/09/2011 que determina la existencia de un nivel sonoro de 31,3 dB(A) en la vivienda de la parte reclamante, a las 14:20 horas, es decir, en horario diurno, por lo que no se supera el nivel establecido en la reglamentación vigente."*

Aipatu beharra dago taberna horrek titulartasuna aldatu duela, baita hainbatetan burututako jardueraren kalifikazioa ere.

Udalak eskainitako datuen bidez, eta beharrezko kontuarekin, badirudi 1990eko apirilaren 5eko ebazpenean ezarritako neurri zuzentzaileak mantentzen direla.

Aurrekariak gogoan izanda, egokia iruditu zaigu Gasteizko Udalari aztertzen ari garen gaiari buruzko gogoeta batzuk igortzea.

Oharrak

1. Arartekotik zenbait balorazio egin dugu gai honi buruz eta egokia iruditu zaigu ebazpen honetan jartzea.

Gasteizko zarataren eta bibrazioen aurkako Udal Ordenantzak (2010/12/01eko ALHAO), 21. artikuluko 3. atalean, "*Baldintza bereziak. Ostalaritzaren establezimendu publikoaren erabilera*" izenburupean, zera jasotzen du:

*"Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Udal Ordenantzan arautu da establezimendu bakoitzari dagokion isolamendu maila. Jardueren **ordutegiari** dagokionez, ondorengo isolamendu mailak eskatuko dira:*

1. *multzokoak (296/97 dekretua) - **Maila TXIKIA***
2. *multzokoak (296/97 dekretua) - **Maila ERTAINA***
3. *multzokoak (296/97 dekretua) - **Maila HANDIA***
4. *multzokoak (296/97 dekretua) - **Maila BEREZIA**"*

Horri zera gaineratu beharko genioke:

"Horrenbestez, honako lau isolamendu mailak finkatzen dira:

*Maila **TXIKIKO** isolamendu akustikoa.- Aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (Ia) 60 dB-ren parekoa edo handiagoa duten lokalak.*





*Maila **ERTAIN**eko isolamendu akustikoa.- Aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (la) 67 dB-ren parekoa edo handiagoa duten lokalak.*

*Maila **HANDI**KO isolamendu akustikoa.- Aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (la) 75 dB-ren parekoa edo handiagoa duten lokalak.*

*Maila **BERE**ZIKO isolamendu akustikoa.- Aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (la) 80 dB-ren parekoa edo handiagoa duten lokalak.*

Antolamendutik kanpoko aretoak.- Antolamendutik kanpoko aretotzat joko dira aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren maila (la) gutxienez ordu kategoriaren arabera dagokiena baino 17 dB baxuagoa duten establezimenduak.

Udalak eskainitako datuen bidez baieztatu dezakegu jarduera hori martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuaren 2. artikuluko 2. taldeari dagokiola, beraz, **67 dB(A)**ko isolamendu akustikoa eskatuz.

2. Zentzu horretan, erakunde honek aipatu behar du, oro har, sailkatutako jardueren kontrol erregimenak ingurumen arloko eskakizunen **kontrol etengabea** barne hartzen duela.

Hala, lizentziek sortzen dituzten harremanek indarrean irauten dute herritarren mesederako den artean. Administrazioak **une oro** beharrezkoa dena adostu dezake jarduera **ingurumen arloko eskakizunek xedatutakoarekin bat etor dadila**.

Polizia eginkizuna etengabe gauzatu behar da eta ez da bertan behera geratu behar lizentzia eman ostean. **Neurri zuzentzaileak ezartzea eta ez eraginkor bihurtzen direnean berraztertzea** ere adosteko aukera aurreikusi da (Beste batzuen artean: 1996ko urtarrilaren 19ko Auzitegi Gorenaren epaia).

Hala, aurreko lizentzia bat egoteak esan nahi du administrazioaren eskutik kontrola egongo dela eta kontrol hori ez dela bertan behera geratuko baimena eman ostean, baizik eta lotura **etengabea** sortuko dela baimendutako jardueraren gauzatzean zehar egon daitezkeen arrisku posibleen aurrean interes publikoa babeste aldera.

Argi utzi behar da jarduerak **beti** bete beharko duela baldintza inplizitu bat, une oro interes publikoaren arabera izatea alegia.

Horrela bada, exigentzia horiek Administrazioari ahalmena ematen diote proportzionaltasun egokiaz baimendutako jardueran esku hartzeko, eskubide hori gauzatzen dutenei **ofizioz ere** jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaile eta egokitzzaileak ezarriz, eta, interes publikoko exigentzietara egokitzeko aukera guztiak agortu badira, emandako baimena baliogabetzeko; izan ere, hala egin ezean, alde batera uzten ariko litzateke zaintza, segurtasun, komenigarritasun eta ordena publikoko betebeharrak.





3. Zentzu hori bera azaltzen du zarataren eta bibrazioen aurkako Udal Ordenantzaren bigarren xedapen iragankorrak, "*Ostalaritzako Establezimendu Publikoen Isolamendu Akustikoa Ordenantzara Egokitzea*" izenburupean zera adierazten baitu:

1.- Ostalaritzako establezimendu publikoek 21.1. artikuluan xedatutakora egokitu beharko dute honako kasuetan:

(...)

1.2.- Establezimenduek neurri zuzentzaile gisa ezarria dutenean, II. tituluko zarata mailak behin eta berriro ez betetzeagatik."

Ondorioz, ezin dugu alde batera utzi Gasteizko Udalak egoera horien aurrean islatutako konpromisoa. Horrela bada, Bigarren Xedapen Iragankorraren 1.5. puntuan zera xedatzen du:

"Udalak moldatze-plana egin beharko du, eta bertan ezarri ostalaritzako establezimendu publikoen isolamendu akustikoa udaleko teknikariek planean ezarritako baldintza eta terminoetan egokitzeko finantziazio-ildoak."

4. Azkenik, erakunde honek ez du alde batera utzi nahi hizpide dugun establezimenduaren itxiera ordutegia.

Abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikulua arabera -duela gutxi martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuaren bidez aldatua (2012ko martxoaren 21eko EHAA), hizpide dugun jarduerarako, bere taldeari dagokion itxiera ordutegi orokorra ezartzen da, hau da, 01.00etan, 7. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Zentzu horretan, azpimarratu behar dugu, nolana ere, debekatuta dagoela musika ekipoen erabilera, emanaldiak burutzea, dantzalekuak edo antzekoak 09.00ak baino lehen (abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 9. artikulua)

Adierazitako guztiarengatik, kexan dauden datuak eta Udalak igorritako informazioa ikusita eta gainerako gogoetak kontuan izanda, igortzen ditugu honako

Ondorioak

Gasteizko Udalak, bermatzaile den heinean, Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. eta 65. artikuluetan jasotako ikuskapen eta zigor ahalmenekin jarraitu behar du, ingurumeneko legezkotasuna betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

